

SAN MARTIN, 9 ETA 11KO 36 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN 2. ZOZKETA ETA ESLEIPENA EGITEKO ARAUDIA

Zozketa fede-emaile publikoaren aurrean egingo da.

Irekia izango da, edozein pertsona bertaratu ahal izango da hura ikustera.

Zozketa Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxean izango da, Hitzaldi Aretoan (3. solairua) izango da, 2023ko martxoaren 30ean, 12:00etan.

Zozketa bateratua egingo da etxebizitza guztietarako, baina esandako lehentasun-taldean arabera zozketatuko dira:

- 1.- Lehenengo, Bermeon gutxienez azken urtebetean — oinarri hauek onartu zirenetik— erroldatuta daudenen artean;
- 2.- Bigarren, baldintza hori bete gabe Bermeon erroldatuta daudenen artean, betiere oinarri hauek argitaratu baino lehen erroldatuta badaude;
- 3.- Hirugarren, Eremu Funtzionalean udalerrietako batean erroldatuta daudenen artean.

ESLEITZEKO PROZEDURA

1. Prozeduran onartutako eskari kopurua etxebizitzen baino handiago denean, esleipena fede-emaile publikoaren aurreko zozketa publiko bidez egingo da, zehaztutako lehentasun hurrenkeraren arabera.

Esleipena egiteko orduan etxebizitzak bizikidetzta-unitatearen beharretara egokitzen direla hartuko da kontuan.

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 LEGEAREN 62.2 artikuluan gain-okupazioari buruz jasotakoa kontuan hartuko da:

a) Etxebizitza batean pertsona 1 bizi bada, etxebizitzak 25 metro karratu erabilgarriko azalera eduki beharko du gutxienez.

b) Etxebizitza batean 2 pertsona bizi badira, hark 33 metro karratu erabilgarriko azalera eduki beharko du gutxienez.

c) Etxebizitza batean 3 pertsona edo gehiago bizi badira, hark 15 metro karratu erabilgarriko azalera eduki beharko du, gutxienez, pertsonako.

Honetarako ez dira kontuan hartuko terrazen, balkoien eta esekitokien azalerak.

Era berean 27. Artikuluan AGINDUAK esaten du (2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa) etxebizitza egokia zer den. Etxebizitza hauek banatzerakoan kontuan izango da irizpide hau.

- a) Logela bat gehienez bi kiderentzat.*
- b) Bi logela gehienez lau kiderentzat, bikotea osatzen ez duten bi pertsona edo mediku espezialistaren aginduz bere logela eduki behar duen pertsona bat bizikidetza-unitateko kide badira izan ezik.*
- c) Hiru logela gehienez sei kiderentzat.*
- d) Lau logela edo gehiago zazpi kidetik aurrera.*

2. Prozeduran sartutako pertsona edo bizikidetza-unitate bakoitzari parte hartzeko zenbaki bat emango zaio zozketa egin aurretik. Zozketan parte hartzeko zenbakiak ausaz emango dira; hala, 1 zenbakitik hasi eta korrelatiboki jarraituko da harik eta prozeduran sartutako eskaera guztiei eman arte. Prozeduran sartutako pertsonen edo bizikidetza-unitateen dagozkien zenbakien berri emango zaie, gutxienez zozketa egin baino astebete lehenago.
3. Zozketa egitean, lehenik eta behin, eskaera-zenbaki bat ausaz hautatuko da, eta horretatik hasiko dira etxebizitzak esleitzen, banan-banan sustapena amaitu arte.
4. Etxebizitzak esleitzeko sasoian, esleipen oinarrietan xedatutako hurrenkerari jarraituko da. Aipatu beharra dago esleituko diren etxebizitzak hasierakoak baino bat gehiago direla, esleipendun batek uko egiteagatik oinarriak onartu eta gero.

ESLEIPENA EGITEKO ORDENA

1. 9. ATARIA 4.B	9. 11 ATARIA 4.C
2. 9. ATARIA 3.C	10. 11 ATARIA 3.C
3. 9. ATARIA 3.B	11. 11 ATARIA 3.B
4. 9. ATARIA 3.A	12. 11 ATARIA 3.A
5. 9. ATARIA 2.C	13. 11 ATARIA 2.D
6. 9. ATARIA 2.B	14. 11 ATARIA 2.C
7. 9. ATARIA 1.D	15. 11 ATARIA 2.A
8. 9. ATARIA B.A	

Beti hartu beharko da kontuan etxebizitza bizikidetza-taldearen tamainara eta premietara egokitzen dela, aurretik aipatutako araudiaren arabera.